EGUZKIA

Zeruan jaiki zaigu
goizean jaun Eguzki

(eskuak ireki arku bat eginez)

bere izpi guziak
luzaturik nasaiki.

(bi eskuetako erhiak ireki eta hets)

Agur dio lurrari,
eztiki edo finki.

(eskuak ahoaren bi aldeetan eman eta zabalduz joan)

Zoriona eskaintzen,
nola gerta, badaki.

(irria eskuz marraz)

EGUZKIA

GORPUTZAREKIN ARITZEA

Musika erritmo baten arabera, mezu baten adieraztea. Jestuen eta mugimenduen bidez, sentimenduen eta emozioen adieraztea

– Baloia baliatuz, Eguzkia mima ezazu.
– Beroaren adierazteko, izerdi tantak aurpegian eskuz mima itzazu.
– Zeruan agertzen dela adierazteko, bi besoak zabal itzazu, gorputza xut emanez.

HAUTEMATEA, NABARITZEA, IRUDIKATZEA, SORTZEA

Kantuen gogoan hartzea eta haien kantatzen jakitea

– *Iduzkia* kantua entzun (*Kantiruri,* Pantxika Solorzano).

MUNDUAREN EZAGUTZA

Materiaren ezagutzea

– Kanpoan, Eguzkiak tenore ezberdinetan duen kokaguneari beha.
– Lurrean eguzki-ordulari bat egin, egun osoko emaitzak bilduz.
– Beroa/hotza lant.
– Negua/uda, urtaroak eta jantziak.

Eguneroko objektu zenbaiten eta haien erabileraren ezagutzea

(Fitxak)

Ttipiak / MS

- Bero den guzia gorriz margo ezazu eta hotz dena urdinez (1. fitxa).

Artekoak

– Bero delarik janzten dituzun jantziak gorriz margo itzazu eta hotz delarik janzten dituzunak urdinez (2. fitxa).

Handiak

– Azpian diren etiketak pika (motz) itzazu eta dagokien jantziaren ondoan kola (3. fitxa).











1. fitxa



2. fitxa



3. fitxa